

2020KO MAIATZAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2020eko maiatzaren 28an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- IRATI ABIO MURUAGA andrea(EH Bildu)
- MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE andrea(EH Bildu)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- GORKA URIARTE URAZURRUTIA jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)
- JAVIER MIGUEL ALVARADO jauna (BAKIOBAI)

Zinegotzi hau ez da bertaratu: GUILLERMO MARTÍN MARTÍN jauna (EAJ-PNV)

Helburua: Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”adagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- COVID-19K SORTUTAKO OSASUN LARRIALDI EGOERAK BEHARTUTA EGINDAKO LANEN BARRI EMAN.

Ametz Jauregizar hauxe adierazo dau:

Eskerrak emon deutsez herritar guztiei Covid-19k sortu dauan osasun larrialdiari aurre egiteko, agindu dan alarma egoerak behartuta egon dan konfinamenduan izan daben portaera eredugarriagaitik, esanez, horretarako ez dagoala ikustea baino conoravirusak zenbat jende kutsatu dauan (11 gaur arte), oso gutxi beste herri batzuekaz konparauta.

Eskerrak emon deutsez be bai, gaurko udalbatzarrean parte hartuko daben guztiei, batzar hau grabaten dagozenei.

Momentu honetan, alarma egoera hor jarraitzen dauan arren, jendearen mugikortasunari jagokonez, egoera malguago da, konfinamendua bertan behera geratu da eta egoera barri honetara egokitzen jakin beharko dogu.

Konfinamendua egon den bitartean udala jarduera ez da eten, egunero egon gara beharrean, bai zinegotziok, bai eta beharginak be. Zeregin handia egon da, batez be egoera normal batean ohikoa ez dan zeregina, esaterako, egoera larrian egon diran pertsonakaz (egoera ekonomikoa, osasun egoera edota gizarte egoera dala-eta), batez be adinez 70 urte baino gehiago dabenakaz; zaharren egoitzakaz hartu emonak izan doguz be. Hortik aparte, egoerak behartuta beste zeregin batzuk be egin doguz, bai herriko eskolegaz, bai Bakio Hedatzen alkatteagaz, bai herriko tabernari batzuekaz, eta abar. Dino be, kultur etxeko jarduera batzuk be egin dirala.

Beraz, Udala prest dago, ahal dauan neurrian laguntzeko Covid-19k sortutako egoera gogor honek ekonomiaren aldetik kaltetuak izan diran herriko autonomo eta enpresa txikiei, horretarako, bilera honetan aurrerago onartuko diran dirulaguntzak banatzeko oinarriak onartzeko saioa egingo da.

Uda ezohikoa izango da, ze herrira jende asko etorriko dan arren, osasun egoera mantentzeko, beraz, Covid-19ren zabalkundea ekiditeko, Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldundiatik jasotako gomendioak ezinbestean bete beharko diralako.

Azkenik, herritar guztiei deitu gura deutset esanez udal beharginei eta zinegotziei laguntzeko pandemiari aurre egiteko hartuko diran neurriak aplikatzeko orduan.

2.- 2020KO OTSAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdujake zinegotziei 2020ko otsailaren 27an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON ETA 114/2020 DEKRETUA BERRONETSI.

Gai honeri hasikerea emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

53/2020.- Udal hilerriko 80. nitxoaren emakida 5 urtez luzatzea.

54/2020.- Aholkularitza juridiko zerbitzua, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez, kontratatzeko espedientea eta kontratua arautzeko administrazio klausula zehatzen eta teknikoen orria onartzea.

- 55/2020.- Obra bat lehenengo bidar okupatzeko lizentzia.
- 56/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.
- 57/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 58/2020.- Espediente batean ikusitako akatsa zuzentzea.
- 59/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.
- 60/2020.- Alegazinoak ezestea eta obrak lehengoratzea.
- 61/2020.- "B FOODTRUCK jarduera iminteko baimena.
- 62/2020.- Nominak onartzea.
- 63/2020.- Oholtza iminteko baimena.
- 64/2020.- Obra lizentzia emotea.
- 65/2020.- Egurra atarateko baimena.
- 66/2020.- Jolastoki bat hornitzeko kontratua esleitzea.
- 67/2020.- 03/2020 espedientean ikusitako akatsa konpontzea.
- 68/2020.- Bermeoko eta Bakioko Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, beti be udal bietako udaltzaingoen Gaztelugatxe inguruan lan egin ahal izateko.
- 69/2020.- Itzulketa bat egitea onartzea.
- 70/2020.- Kitapenaren obligazioa onartzea.
- 71/2020.- San Joseetako azoka bertan behera.
- 72/2020.- Itzulketak egitea onartzea.
- 73/2020.- Kitapenaren obligazioa onartzea.
- 74/2020.- Jardueraren titulartasunaren eskualdaketaren jakitun egotea.
- 75/2020.- Kitapenaren obligazioa onartzea.
- 76/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 77/2020.- Kiroldetza behin-behinean ixtea.
- 78/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

- 79/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 80/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.
- 81/2020.- Dekretuen hurrenkera.
- 91/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 92/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 93/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 94/2020.- Elkarkidetzan alta bat emotea.
- 95/2020.- Errautsen lekualdaketa onartzea.
- 96/2020.- Udalerriko merkataritza-establezimenduetarako salgaien zamalanetarako ezarritako ordutegia bertan behera ixtea.
- 97/2020.- lan-legepeko administrariaren kontratua 3 hilabetez luzatzea.
- 98/2020.- Sasitza kentzeko agindua.
- 99/2020.- Itzulketak egitea onartzea.
- 100/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 101/2020.- 2019eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzea.
- 102/2020.- Kotxea alokatzeko kontratua sinatzea.
- 103/2020.- Goiener S. Coop. enpresagaz sinatutako kontratua luzatzea.
- 104/2020.- Nominak ordaintzeko ebazpena.
- 105/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.
- 106/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 107/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 108/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 109/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 110/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

- 111/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 112/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 113/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 114/2020.- Kiroldegiko kontratua bertan behera ixtea.
- 115/2020.- Udaltzain baten izendapena luzatzea.
- 116/2020.- Auto pasabide baten baja.
- 117/2020.- Torrea barriztuteko lizentzia.
- 118/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 119/2020.- Maskarak erostea.
- 120/2020.- Euskatel enpresagaz sinatutako kontratua luzatzea.
- 121/2020.- Itzulketa bat onartzea.
- 122/2020.- Itzulketak onartzea.
- 123/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 124/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 125/2020.- Nominak ordaintzeko ebazpena.
- 126/2020.- Obrak egiteko lizentzia.
- 127/2020.- Mahatsondoak 10-B lursailetik ateratzeko baimena.
- 128/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 129/2020.- Erreklamazino bat ezestea.
- 130/2020.- Automobila alokatzeko kontratua.
- 131/2020.- Nitxo baten kontzesinoa.
- 132/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.
- 133/2020.- Animalia arriskutsuak eukiteko lizentzia.
- 134/2020.- Animalia arriskutsuak eukiteko lizentzia.

- 135/2020.- Egurra atarateko baimena.
- 136/2020.- Kiroldegiaren ustiapenari laguntzeko ekarkinak.
- 137/2020.- Udaltzainen lan poltsa.
- 138/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 139/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 140/2020.- Itzulketak egitea onartzea.
- 141/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 142/2020.- Obligazinoen ordainketa onartzea.
- 143/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.
- 144/2020.- Itzulketa bat onartzea.
- 145/2020.- Administrarien lan poltsa.
- 146/2020.- Obra lizentzia emotea.
- 147/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.
- 148/2020.- Kredituak gaitzea.
- 149/2020.- Elkartegia erabilteko baimena.
- 150/2020.- Erreklamazino bat ezestea.
- 151/2020.- Igeltseroen kontratazinoa.
- 152/2020.- Kotxea alokatzeko kontratua sinatzea.

Alkate andreak dekretu honeei buruz azalpenak emon dauz:

68/2020 dekretua, Bermeoko eta Bakioko Udalen arteko hitzarmena, Lankidetzaz hitzarmen hau nahitaezkoa egiten da inguru horretan sortzen dan arazoari irtenbide bat emateko, hau da, ibilgailu eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko, aurreko urteetan inguru horretara hurbildu dan jendetza ikusita eta gero.

110/2020 dekretua, 2019ko udal aurrekontuari jagokona. Horreri lotuta esan behar da ekainean Plagintza Ekonomiko Finanzieroa onartzeko asmoa dagoala.

Jarraian, 114/2020 zk. dekretuari jagokonez, idazkariak hauxe dino:

Covis-19k sorrarazitako osasun larrialdia kudeatzeko martiaren 14ko 364/2020 Errege Dekretuak alarma egoera ezarri eban, eta horren barruan hainbat neurri indarrean ipini ebazan, besteak beste. Kiroldegien itxi beharra.

Hori harira UTE POLIDEPORTIVO BAKIORi (kiroldegia kudeatzen dauan enpresen alkartea) kiroldegia zarratzeko agindu jakon. Agindua, bete eban, bete beharra eukalako, eta horren ostean kudeatzaile horrek idatzia aurkeztu eban udalari eskatzeko sorrarazoko jakozan gastuak ordiantzeko.

Gaia, 2020ko apirilaren 6ko Koordinazino Batzordean eztabaidatu zan eta Batzorde horren agindua betez, apirilaren 8ko 114/2020 dekretua idatzi zan, Izan ere, udala prest dago gastuak ordaintzeko, beti be aplikagarria dan araudian azaltzen dan moduan, baina, horretarako UTE POLIDEPORTIVO BAKIOk liquidazinoa aurkeztu beharko dau eta udalak ontzat eman.

Udaklaren osoko Bilkurak, 114/2020 dekretua aho batez berronetsi dau.

Azkenik, idazkariak dino, sistema informatikoan egon dan hutsune baten erruz, dekretuen zerrendan 81 zenbakidun dekretutik 91 zenbakidun dekretura pasatzen dela, baina dekretu horreen bion tartean ez dagoela beste dekreturik.

4- UDALBATZAK 2020-02-27AN UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDEAREN ALDAKETA ONARTZEKO HARTUTAKO ERABAGIA BERTAN BEHERA ITXI, BETIERE ELAK SINDIKATUAK ETA EAJ-PNV TALDE POLITIKOAK AURKEZTU DABEN ERREKURTZOAREN HARIRA IDATZITAKO TXOSTEN JURIDIKOAN OINARRITUTA.

“Aurrekariak

LEHENIK: Alkatetzaren 2019ko irailaren 30eko dekretuaren bidez, erabaki zen Gure ABOKATUAK SLPri agintzea Bakioko Udaleko lanpostuen zerrendan 6 lanpostu sortzeko espedientea izapidetzeko proposamena idazteko, aholkularitza emateko eta laguntza emateko.

Negoiazio Mahaiak 2020ko urtarrilaren 29an egindako bileran udal gobernuaren proposamena landu zan, hau da lanpostuen zerrendan 6 plaza sortzea, hauek hain zuzen ere: udaltzain bat, hiru udaltzain-laguntzaile, administrari bat eta lanbideetako langile bat, betiere Udaleko aholkulari juridikoaren 2019ko abenduaren 27ko txostenaren arabera. Izan ere, txosten horretan euron zereginak, ordainsariak eta nibelak zehazten dira, besteak beste. Era berean, Aguazil lanpostuari dagozkion aldaketak egiteko (Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 5. aldaketak ezarritakoaren arabera) izapideen berri eman zen mahaian.

Mahaiaren bilera horretan 6 plaza berri horiei buruzko aldaketak batzuk egitea adostu ziren eta aldaketa horiek jasotzeko eta aguazilaren lanpostua aldatu eta Udaltzaingoko

zerbitzuko agentea bihurtzeko (horretarako Eusko Jaurlaritzaren baimena jaso zan), aholkulari juridikoak 2020ko otsailaren 18ko txostena idatzi zuen.

2020ko otsailaren 27an, Bakioko Udaltzatzen ohiko bilkuran, puntu berean jorratu ziren (5. puntua) 6 lanpostu sortzea eta aguazil lanpostua legez aldatzea eta osagarri pertsonal iragankorra sortzea, guztiek hasieran onartutako Lanpostuen Zerrendaren aldaketan sartu ziren, EH. Bildu eta Bakiobai taldeetako zinegotzien botoekin eta EAJ-PNV taldeko zinegotzien aurkako botoekin. Alkate andreak azaldu zuen aldi baterako langileen osagarria zergatik onartu den, eta adierazi zuen LPZ eguneratu dela, Udaltzatek ezarritakora egokitu, eta horrek lanpostu batzuen berariazko osagarria aldatzea ekarri duela.

2020ko martxoaren 10ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bakioko Udaleko lanpostuen zerrendaren (LPZ) aldaketaren hasierako onarpena argitaratu zen, 6 plaza sortu zirela eta lehendik zegoen lanpostu baten ezaugarriak aldatu zirela adieraziz, azken hori aguazil lanpostuari zegokionez, eta 15 eguneko epea eman zitzaien interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak Udaltzate aurkezteko. Hala ere, ez da argitaratu LPZko lanpostu batzuen berariazko osagarriaren aldaketa eta aldi baterako osagarri pertsonalaren sorrera.

2020ko apirilaren 1ean, ELA sindikatuak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen Bakioko Udaltzate 2020ko otsailaren 27ko osoko bilkuraren 5. puntuan erabakitako LPZren aldaketaren aurka, uste baitzuten LPZren aldaketa erabat deuseza zela, negoziatio-mahaian negoziatu ez zelako.

Errekurtso horri buruz, udaleko aholkulari juridikoak 2020.04.20ko data duen txostena idatzi zuen

2020ko apirilaren 20an, Bakioko EAJ/PNV Udaltzateak idazki bat aurkeztu zuen, Bakioko Udaltzate 2020ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuraren 5. puntua onartzea erabat deusez deklaratzeko eskatuz, berariazko osagarriaren aldaketa eta aldi baterako osagarri pertsonalaren onarpena bosgarren puntuan sartu zirela iritzita, baina gai-zerrendan ez da halakorik jasoko, eta ez da bete legez ezarritako prozedura.

BIGARRENIK.- 2020ko apirilaren 22an bilera bat egin zen, eta bertan udaltzate langileek, talde politikoez, ELA sindikatuaren ordezkariak eta udaltzate aholkulari juridikoak parte hartu zuten: alkateak bilera horren arrazoiak azaldu zituen, ELA sindikatuak aurkeztutako berraztertze errekurtsoaren eta EAJk aurkeztutako alegazio-idazkiaren berri ematea besterik ez zela: Izan ere, alegaziotz biek hainbat arrazoi direla medio, lanpostuen zerrenda aldatzeko erabakia baliogabetzea eskatu zuten; era berean, alkate andreak idazkiok onartzeak ekar ditzaketen ondorioak azaldu zituen.

Udaleko aholkulari juridikoak, bilera horretan, ELAren eta EAJ/PNVren alegazioen edukia azaldu zuen, bai eta alegaziotz horiei buruz duen jarrera ere (ñabardurarik ezean bat datozenak), eta biak onartzea proposatu zuen, batez ere forma-akatsagatik, Negociatio Mahaian ez zelako negoziatu berariazko osagarriaren aldaketa eta osagarri pertsonal iragankorra sortzea.

Aholkulari juridikoaren 2020.04.20ko txosten juridiko horretan oinarrituta ELA eta EAJ-ren alegazioak onartzeko orduan oinarriak hauek dira:

II.-Oinarri juridikoak

LEHENA.- Auzitegi Gorenaren 2014ko otsailaren 5eko Epaian ezarritakoaren arabera, lanpostuen zerrenda administrazio-egintza denez, hura onartzea edo aldatzea 39/2015 Legean ezarritako administrazio-prozedura erkidearen mende dago, eta, ondorioz, Udaleko Osoko Bilkurak LPZren aldaketa onartzea behin betikotzat jo beharko litzateke, eta, beraz, dagokion errekurtsio-araubidearen mende, eta ELA sindikatuak, aurkeztutako idazkia baietsi beharko litzateke, betiere berraztertze errekurtsio modura.

BIGARRENA.- Lanpostuen Zerrenda onartzea edo aldatzea, nahiz eta ez duen berez prozedurarik ezarrita, jurisprudentziak funtsezko izapide hauek ezarri ditu:

Egin beharreko lanpostu-zerrendaren aldaketari edo onarpenari buruzko txostena edo balorazioa.

Negoiazioa langileen ordezkariekin eta sindikatuekin negoziatzea, negoziazio kolektiboaren esparruan.

Organo eskudunak, hau da, osoko bilkurak, onartzea.

Aldizkari ofizialean argitaratzea.

Jurisprudentziak zorrotz ezarri du negoziazorik ez egoteak erabakitako aldaketa edo onarpena erabat deuseztatzea dakarrela (Auzitegi Gorenaren 2015/02/18ko epaia; Auzitegi Gorenaren 650/2019 epaia, maiatzaren 21ekoa).

Udalbatzaren 2020ko otsailaren 27ko ohiko bilkuran onartutako LPZren aldaketei dagokienez, berariazko osagarriaren aldaketa eta osagarri pertsonal iragankorraren onarpena ez ziren negoziatu negoziazio-mahaiaren sindikatuarekin eta Udaleko langileen ordezkariarekin. Bestalde, LPZn 6 lanpostu berri sortzeari eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 5. aldaketan ezarritakoaren arabera, aguazil gisa jarritako zenbait xedapen aldatzeari dagokienez, 2020ko urtarrilaren 29an egindako negoziazio-mahaiaren bileran aztertu ziren, baina bertan adostutako aldaketen gainean eztabaidatzeko Mahaia 2020.02.27a baino lehen ez zen batu”.

Begoña Abio zinegotziak dio udaleko aholkulari juridikoaren 2020 txostena ELA sindikatuak aurkeztutako alegazioaren gainean aritzen dela batez ere, eta EAJ/PNV aurkeztutakoari buruz aipamenik apenas egiten dela. Halaber dio lanpostuak sortzea, aguazilaren lanpostuaren ezaugarriak aldatzea eta osagarri pertsonal iragankorra sortzea, puntu berean eta denak batera bozkatu zirela, gai desberdinak izanik, aparte bozkatu behar denean.

Udal idazkariak diotso txostena alegaziogile biei erantzuteko dela baliagarria, izan ere, edukiaren aldetik biak antzekoak direlako.

Horregatik guztiagatik eta udaleko aholkulari juridikoaren 2020.04.20ko txostena kontuan hartuz, Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez (5 Bildu/EH alderdi politikokoak, 3 EAJ/EAJkoak eta 2 BAKIOBAIkoak), honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- ELA sindikatu-konfederazioak 2020.04.1ean aurkeztutako berraztertze errekurtoa onartzea, eta, beraz Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko otsailaren 27an udal honetako Lanpostuen zerrendaren aldarazpena onartzeko hartutako erabakia bertan behera uzten da, ondoriorik gabe

EAJ-PNV udal taldeak 2020.04.20an aurkeztutako berraztertze errekurtoa onartzea, eta, beraz, ondoriorik gabe uzten da lanpostuen zerrendaren aldaketa, sei lanpostu berri sortzea eta hasieran onetsitako osagarri pertsonal iragankor berria aplikatzea barne, erabateko deuseztasuneko kausetan erortzeagatik.

BIGARRENA.- Bakioko Udalak 2020ko otsailaren 27ko ohiko bilkuran, udaleko langileen Lanpostuen Zerrenda aldatzeko hartutako erabakia baliogabetu egin da.

5.- ERABAGIA HARTU UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEKO, 6 PLAZA BARRI SORTZEKO (BOST FUNTZIONARIO ETA LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO BAT).

Negoiazino Mahaiak, 2020ko maiatzaren 20an egindako bileran plaza hauek sortzea adostu ziran: udaltzain bi, udaltzain laguntzaile bi eta udal eraikinetan aritzeko eskulanetarako langile bat

Negoiazino Mahaian adostutakoa zehazteko, udaleko aholkulari juridikoak 2020ko maiatzaren 20ko data dabezen txosten bi idatzi ebazan. Txosten horretan plaza horreetan ezarriko diran lanpostuen izendapenak, ordainsariaren nibelak, funtzinoak eta beste ezaugarri batzuk zehazten dira. Idatzi horreen barri zinegotziek badaukie.

Zinegotziek horren guztiorren barri daukien ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, etabagi hau hartu dau:

LEHENIK.- indarrean dagoan Bakioko Udaleko lanpostuen zerrenda aldatzea, ondoren zehaztutako 6 plaza sortuz, lanpostu honeetarako:

Plaza: funtzionarioa

Kopurua: 1

Lanpostua: Administraria

Eskala: administrazio orokorra

Azpieskala: administratiboa

Arloa: Idazkaritza

Kidegoa: C1

Titulazio akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

Hizkuntz eskakizuna: 3.
Derrigortasun data: 2020-05-28
Dedikazioa: lanaldi osoa
Ordainsari maila, udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 14
Lanpostu mailako osagarria, 364/1995 dekretua: 18
Berariazko osagarria: 19.996,87 €
Egoera: hutsik
Hornidura: oposizioa.

Plaza: funtzionarioa
Kopurua: 2
Lanpostua: udaltzaina
Eskala: administrazio berezia
Azpieskala: zerbitzu bereziak
Arloa: idazkaritza
Kidegoa: C1
Titulazio akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. B2 edo BTP gidabaimena.
Hizkuntz eskakizuna: 2
Derrigortasun data: 2020-05-28
Dedikazioa: lanaldi osoa
Ordainsari maila, Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 15
Lanpostu mailako osagarria, 364/1995: 21
Berariazko osagarria: 20.656,02 €
Egoera: hutsik.
Hornidura: oposizioa.

Plazak: funtzionarioa
Kopurua: 2
Lanpostua: udaltzaingoko laguntzailea:
Eskala: administrazio berezia
Azpieskala: zerbitzu bereziak
Arloa: idazkaritza
Kidegoa: C1
Titulazio akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. B2 edo BTP gidabaimena.
Hizkuntz eskakizuna: 2
Derrigortasun data: 2020-05-28
Dedikazioa: lanaldi osoa
Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 14
Lanpostu mailako osagarria, 364/1995 dekretua: 18
Berariazko osagarria: 19.996,87 €
Egoera: hutsik
Hornidura: oposizioa.

Plaza: lan-kontratuko langile finkoa

Kopurua: 1

Lanpostua: ofizioetako behargina

Arloa: zerbitzu orokorrak

Kidegoa: C2

Titulazio akademikoa edota bestelako beharkizunak: eskola graduatua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

Hizkuntz eskakizuna: 1

Derrigortasun data: 2020-05-28

Dedikazioa: Lanaldi osoa, lanaldi luzatuaren modalitatearekin, dedikazio absolutuarekin, beraz, % 15 igoko da ordainsaria (Udalhitz hitzarmeneko 76. artikuñua).

Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 14

Berariazko osagarria: 5.393,80 €

Egoera: hutsik

Hornidura: oposizioa.

BIGARRENIK.- erabagi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitatzeari buruz

6.- LANPOSTUEN ZERRENDAN AGUAZIL LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK ALDATZEKO (UDALTZAIN ZERBITZUKO AGENTEA BIHURTZEKO) ERABAKIA HARTU.

Bakioko Udalak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatuta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako aholkularitza juridikoak txosten bat egin dau. Txosten horren arabera, Gorka Uriarte Bilbaok agente kategorian (Batxilergoa edo baliokidea) sartzeko eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, hirugarren ondorioan ezartzen du Gorka Uriarte Bilbao jaunari jagokola Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarren aldaketaren ekainaren 27ko 7/2019 Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatzea, eta Bakioko Udala urtebete duela C taldean, C1 azpitaldean (polizia-zerbitzuko agentearen kategorian) sartzeko.

Hori kontuan izanik, negoziazio Mahaiaren 2020ko maiatzaren 20an egindako bileran horren barri emon zan, eta aguzilaren lanpostuari buruzko gaiaren gainean Mahaiak erabagetakoa aholkulari juridikoaren 2020.05.20ko txostenean jasoten dan ezker, — zinegotziek badaukie txostena — Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez, etabagi hau hartu dau:

LEHENIK.- Indarrean dagoan Bakioko udaleko lanpostuen zerrendako funtzionario plazari jagokon aguzil lanpostua aldatu, lanpostua udaltzain zerbitzuko agentea izendatzeko ezaugarriak honeek izanik

Udaltzain zerbitzuko agentea

Eskala: administrazio berezia

Azpieskala: zerbitzu bereziak

Arloa: idazkaritza

Kidegoa: C1

Titulazio akademikoa edota bestelako beharkizunak: Batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. B2 edo BTP gidabaimena

Hizkuntz eskakizuna: 2.

Derrigortasun data: 1992/12/30

Dedikazioa: Lanaldi osoa.

Ordainsari maila Udalaren hitzarmenaren arabera (Udalhitz): 15

Lanpostu mailako osagarria, 364/1995 dekretua: 21

Berariazko osagarria: 20.656,02 €

Egoera: beteta

Hornidura: lehiaketa.

BIGARRENIK.- erabagi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitatzeari.

7.- ESTEPONA IBAIAREN UHOLDEETATIK BABESTEKO ETA INGURUMENA HOBETZEKO OBRAK EGIN AHAL IZATEKO, BETIERE BAKEA ETA SOLOZARRE EREMUEAN IJEZKETA-LAUTADAK SORTZEAREN BIDEZ, EUSKAL HERRIKO ITSASERTZ-MUGARTEARI ITSAS-LEHORREKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO KONTZESIOA ESKATZEA.

Bakioko Udala eta Uraren Euskal Agentzia jarduketa bateratua egiten ari dira Estepona ibaian, hiriguneko ingurumen-baldintzak eta uholde-arriskua hobetzeko. Aukeratutako irtenbidea da barruko padura bat sortzea ibaiaren azken zatian, Itsasoko eta lurreko jabari publikoa handitzeko, Bakea eta Solozarre eremuetan ijezketa-lautadak sortuz. Horretarako, oinarrizko proiektu bat idatzi da, eta bertan egin beharreko obrak zehazten dira eta horiek Itsasoko eta lurreko jabari publikoan izango duten eragina.

Kontuan hartuta obrak egiteko beharrezkoa dela dagokion administrazio-emakida lortzea, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 31., 42. artikuluetan eta 64. artikuluetan ezarritakoaren babesean, besteak beste.

Hori dela eta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, honako hau erabaki du:

Euskal Autonomia Erkidegoko Itxasertz-Mugarteari eskatzea Estepona ibaiaren uholdeetatik babesteko eta ingurumena hobetzeko obrak gauzatzeko, okupatu beharreko itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren emakida eman dezala, Bakea eta Solozarre eremuetan ijezketa-lautadak sortuz, bai eta obra horiek egiteko beharrezko baimenak ere, espedientean jasotako oinarrizko proiektuaren arabera”

8.- OBRA HONEEI BURUZKO KONTRATAZINO ESPEDIENTEA ONARTU: ESTEPONA IBAIAREN UHOLDEETATIK BABESTEKO ETA INGURUMENA HOBETZEKO OBRAK EGITEA, BAKEA ETA SOLOZARRE EREMUEAN

IJEZKETA-LAUTADAK SORTUZ. ESPEDIENTE BARRUAN PRESKRIPZINO TEKNIKOEN ETA ADMINISTRAZINO KLAUSULEN OINARRIAK AZALTZEN DIRA.

Udalbatzak, 2019ko otsailaren 28an ohiko osoko bilkuran bilduta, honako erabagi hau hartu eban:

Uraren Euskal Agentziaren eta Bakioko Udalaren arteko 2019.01.16ko data daukan Lankidetzaren Hitzarmena onartzea, horren helburua hauxe izanik: Bakioko Estepona ibaiari dagokionez proiektua prestatzeko lana eta uholdeen aurka babesteko obren burutzapena eta ingurumen-hobekuntza –laminazio lautadaren bidez – elkarrekin finantzatu eta gauzatzeko, Uraren Euskal Agentziak eta Bakioko Udalak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea.

Hitzarmen hori gauzatze aldera, Bakioko Estepona ibaiaren uholdeetatik babesteko eta ingurumena hobetzeko obrak egiteko, (Bakea eta Solozarre eremuetan ijezketa-lautadak sortu) proiektua idazteko zerbitzua kontratatzeko espedientea hastea erabagi dau Alkatetzak.

Espedientean, Administrazio Klausula Berezien eta Preskripzio Teknikoen Agiriak ageri dira.

Lanak gauzatzeko gutxienerako epea honako hau izango da:

I. fasea. Hobekuntza hidraulikoko eta ingurumen-hobekuntzako lanak. 6 hilabete, esleipena egiten denetik.

II. fasea. Parke publikoko lanak. 6 hilabete, I. faseari dagozkion lanak entregatzen direnetik.

Egikaritze-proiektua idazteko lanen lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 56.000,00 eurokoa da (BEZa barne).

Dokumentazioa kontuan izanik, zehazki, administrazio-klausula zehatzen eta preskripzio teknikoaren agiriak, eta zementuaren 8ko 9/2017 legegintzako errege-dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 117. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalaren Osoko Bilkurak aho batez, erabagi hau hartu dau:

LEHENENGOA. Bakioko Estepona ibaiaren uholdeetatik babesteko eta ingurumena hobetzeko obrei (Bakea eta Solozarre eremuetan ijezketa-lautadak sortuz) jagokonez, burutzapen proiektua idazteko zerbitzua, prozedura irekiaren bidez, kontratatzeko espedientea onartzea.

BIGARRENA. Kontratu honek dakarren gastua baimentzea, 2020ko udal-aurrekontuaren 1516420002 aurrekontu-aplikazioaren kargura (2019ko luzapena), 2021eko ekitaldian gastuei aurre egiteko behar den kopurua esleitzeko konpromisoagaz.

HIRUGARRENA. Administrazio Klausula Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua onartzea. Baldintza horreek zerbitzu-kontratua arautuko dabe, burutzapen epea urtebetekoa izanik (6 hilabete 1. faseko dokumentua idazteko, eta 6 hilabete, 1. faseko dokumentua entregatzen denetik aurrera, 2. faseko dokumentua idazteko)

9.- 2020.02.27AN 2020KO AURREKONTUA ONARTU ZAN EZKERO, BERTAN JASO DIRAN AKATSAK ZUZENTZEKO TXOSTENA ONARTU.

Atoan, udal idazkariak, hauxe adierazo dau:

Udalbatzak, 2020ko zezeilaren 27an egindako bilera, 2020ko udal aurrekontuak hasikera baten onartu eban. Horren ostean, aurrekontua jendaurrean ipini zan, horretarako, iragarkiak ipini ziran 2020.03.10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko taulan eta berriko web. gunean.

Martiaren 14ko Estaduko Aldizkari Ofizialean, mariaren 14ko 463/2020ko Errege Dekretua (Covid-19k sortutako osasun larrialdi egoerea kudeatzeko alarma-egoerea ebazten dau) argitaratu eta egun berean indarrean sartu zan. Arautegi horretan, azaltzen zan epe administratiboak egun horretatik aurrera etenda geratzen direla.

Handik eta egun gitxira, hau da, martian, aldizkari juridiko baten azaltzen zan 463/2020ko Errege Dekretuaren ondorioz, udal aurrekontua onartzeko jardunbidean ipinita dagozan legezko epeak geratzen zirala.

Aldizkari juridiko berak, apirilean, beste informazio bat argitaratu eban, esanez 463/2020ko Errege Dekretuan azaldutako epe administratiboen etendura ez zala aplikagarria udal aurrekontuak onartzeko behar diran epe administratiboei. Hori dala eta maiatzean BAOra iragarkia bialdu da esanez 2020ko udal aurrekontua, barriro, jendaurrean dagoala 12 egun baliodunetz (martian 3 egun egon zan jendaurrean).

Bien bitartean, Begoña Abio EAJ-PNV taldearen bozeroaleak udaletxean idatzia aurkeztu eban, eta bertan azaltzen zan 2020ko udal aurrekontuaren atal batzuetan akatsak egoazala.

Azken hori dela eta, akats horreek aholkulari ekonomikoa aztertu dau eta ondorioztatu da akats materialak dirala, hau da, zuzendu beharrekoak, baina 2020 udal aurrekontuari funtsean inondik inora be eragiten ez deutsanak.

Horrenbestez, akats ekonomiko horreek zuzentzeko 2020.05.20ko txostena idatzi da. Eta horren harira hemen onartu guran dan erabagi-proposamena be idatzi da. Agiri bi horreen kopiak zinegotzietei bialdu jakez.

Azalpen horreek entzun eta gero, Udalaren Osoko Bilkurak, zinegotzien aho batez (guztira 10) erabagi hau hartu dau:

Udalbatzaren 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzeko espedientean antzemandako akats materialak zuzentzea, honela:

- ABUAren 3. artikuluan, 7.599.221,88 dioen lekuan, 4.385.814,88 esan behar du.
- 19. orrialdean, 2020ko aurrekontuaren zutabeko langileen aurrerakinak izeneko 83301 partidan, 3.606,07 dioen lekuan, 3.600,00 esan behar du; eta, ondorioz, guztizkoan, 4.385.820,95 dioen tokian, 4.385.814,88 esan behar du.
- 25. orrialdean, 011/3690101 partidan, 2020ko aurrekontuaren zutabeko zenbait finantza-gastu, 1.500,00 dioen lekuan 0,00 esan behar du.
- 26. orrialdean, 011/9330001 amortizazioa partidan (2020ko aurrekontuaren zutabeko Caixaren maileguak), 13.700,00 dioen lekuan 13.050,55 esan behar du.
- 26. orrialdean, gastuen egoera, 011/9330005 partidan, 2020ko aurrekontuaren zutabeko hornitzaileentzako maileguen amortizazioa, 103.610,83 dioen lekuan, 101.671,47 esan behar du.
- 31. orrialdean, 2019ko zutabearen, 2017ko ekitaldiko gastu konputagarria dioen lekuan, 2019ko gastu konputagarria esan behar du.
- 31. orrialdean, 2020ko zutabearen, 2019ko ekitaldiko gastu konputagarria dioen lekuan, 2020ko gastu konputagarria esan behar du.
- 32. orrialdean, 2019ko aurrekontu-egonkortasunaren kalkulua esaten duenean, 2020ko aurrekontu-egonkortasunaren kalkulua esan behar du.
- 35. orrialdean, "Lan Pertsonal mugagabea" dioen lekuan, "Aldi baterako lan pertsonala" esan behar du
- 35. orrialdean, Guztira zutabearen, lehenengo 1.140.199,12 batuketan 1.140.170,59 esan behar du; eta, ondorioz, 1. kapituluan, 1.435.191,63 dioen horretan, 1.435.163,10 esan behar du.

10.- 2020KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, MARTIAREN 31RA ARTEKOARI JAGOKONEZ.

Aitatutako gaia dala-eta zinegotziek horrerri buruzko agiria daukien ezkerro, horren barri emon da, beste barik.

11- 2020KO LEHENENGO HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 38. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMON.

5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiru hilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2020ko apirilaren 20ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta 2020ko lehenengo hiruhilekoari jagokon berankortasunaren datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK	
<i>Ordaindu diranak legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe barruan</i>
311.766,49 €	196 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diranak legezko epeetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe kanpora</i>
108.123,10 €	84 ordainketa kopuru

HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epeetik kanpo</i>
182.491,69 €	10.233,63 €

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan ageri da.

Horrezaz gain, 2020ko lehenengo hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epe orokorra hauxe izan da: 28,81 egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

13- BAKIOKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI ETA AUTONOMOEI LAGUNTZAK EMATEA ERABAGI.

Covid-19ren ondorioz sortutako osasun-krisia kudeatzeko kaleratutako arautegiek agindutako alarma-egoera, jendearen konfinamendua ekarri dau eta, ondorioz, larrialdi ekonomikoa. Horrenbestez, proposatzen da Bakioko Udalak herriko enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntza ekonomikoak emotea, jarduera ekonomikoek izan daben beheraldari aurre egin eta jardueri aurre egiten laguntzeko..

Horretarako, COVID 19k Bakioko udalerrian eragindako krisiaren eragin ekonomikoa arintzeko laguntzak emoteko oinarriak idatzi dira, eta horren barri zinegotzi guztiek daukien ezkerro, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau bertaratutako zinegotzi

guztien aldeko botoagaz, (3 zinegotzi EAJ-PNV taldekoak, 5 EH-Bildukoak eta 2 BAKIOBAI-koak):

COVID 19k Bakioko udalerrian eragindako krisiaren eragin ekonomikoa arintzeko laguntzak emateko oinarriak onartzea; euron edukia hauxe izanik:

1.- LAGUNTZEN GAIA

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia bihurtu zuen COVID-19k eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera.

Izandako ezohiko inguruabarrek, zalantzarik gabe, aurrekaririk gabeko osasun-krisia eragin dute, eta, horren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu da, COVID-19k sorrarazitako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena. Bertan, zirkulazio-askatasunerako mugak, aldi baterako konfiskazioak, nahitaezko prestazio pertsonalak eta hezkuntza-, lan-, merkataritza-, jolas- eta gurtza-arloko euste-neurriak jaso dira.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat neurri ekonomiko onartu badituzte ere, egia esan, eragin sanitario, sozial eta ekonomikoa hain handia izan denez, neurri horiek ez dira nahikoak izan kontrako eragina arintzeko.

Testuinguru horretan, Udalak jarduera ekonomikoa babestu, sustatu eta bultzatu nahi du COVID-19k sorrarazitako krisiaren eragin ekonomikoa arintzeko laguntzak ezarriz.

2.- DEIALDI PUBLIKOA ZAILTZEN DUTEN INTERES PUBLIKO, SOZIAL, EKONOMIKO ETA HUMANITARIOKO ARRAZOIAK

Inguruabar bereziak eta interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiak daude, laguntzen deialdia zailtzen dutenak eta laguntza horiek zuzeneko emakida bidez ematea justifikatzen dutenak.

Interes orokorrekoa da jardueraren jarraitutasuna sustatzera eta negozioen eta enpresen behin betiko itxierak izan ditzakeen ondorioak saihestera bideratutako ekintzak aurrera eramatea, Bakioko udalerrian negozioak ixtera edo jarduera etetera behartuta egon diren autonomo eta enpresaburu txikiei laguntzak emanaz.

Badira, gainera, premiazko esku-hartzea justifikatzen duten interes sozial eta ekonomikoko arrazoiak, inpaktu soziala eta ekonomikoa ahalik eta denbora-tarterik laburrenean arintzeko salbuespenezko bide bat aurkitzen saiatuz.

3.- LAGUNTZEN XEDEA

Laguntza ekonomikoak dira, autonomoentzat eta enpresentzat, alarma-egoeraren adierazpenaren ondorioz haien jarduerak etenda edo larriki kaltetuta geratu badira eta betiere onuradun izateko baldintzak betetzen badituzte.

4.- ONURADUNAK ETA BETEKIZUNAK

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak eta enpresak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- *COVID-19 kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz kaltetuta egotea, dela jarduera aldi baterako ixteagatik, dela jarduera nabarmen gutxitzeagatik, fakturazioa % 50 baino gehiago jaitsi bazaie 2019ko urtarriletik maiatzera bitarteko aldiari dagokionez.*

Pertsona fisikoak edo juridikoak diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko 2019ko 5 hilabete naturaletan alta eman ez badu, jardueraren aldi osoa hartuko da kontuan balorazioa egiteko.

- *Helbide fiskala edota jarduera Bakioko udalerrian izatea. Zerga-egoitza Bakion ez duen baina jarduera udalerrian egiten duela egiaztatzen duen jarduerak 6. puntuan zehaztutako zenbatekoen % 30 lortuko du, gehienez ere.*
- *2019an 9.000,00 euro baino gehiago fakturatu izana. Jarduera-lizentzia 2019ko urtarrilaren 1aren ondoren eman bada, kalkulu proportzionala egingo da jarduera hasten denetik.*

Enpresa/autonomo bat aktibo dagoela ulertuko da 2019ko urtarrilaren 1etik COVID19k krisia hasi arte fakturazio jarraitua frogatuz gero. Krisi honen aurretik fakturazioa nabarmen murrizten bada (gutxienez 2019ko irailetik aurrera), ez da diruz lagunduko.

- *Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, arau bidez zehazten den moduan, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.*
- *Autonomoen kasuan, autonomo gisa afiliatuta egotea eta alarma-egoera deklaritzen den egunean alta emanda egotea. (2020ko martxoaren 14a).*
- *Gainerako onuradunei dagokienez, legez eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egotea, bai eta dagokion Gizarte Segurantzako edo Mutualitateko erregimenean alta emanda egotea ere, alarma-egoera deklaritzen den egunean (2020ko martxoaren 14a).*
- *Baztertuta ez dagoen enpresa- edo lanbide-jarduera batean alta emanda egotea.*

- *Enpresek establezimenduak irekitzeko lizentzia egokia, erantzukizunpeko adierazpena izan beharko dute edo 2020ko martxoaren 14a baino lehen eskatua, eta, hala badagokio, auto-taxi lizentzia.*

Pertsona fisiko edo juridiko, sozietate zibil edo ondasun-erkidego bakoitzeko bakarrik aurkeztu ahal izango da laguntza-eskaera.

EJZko bi epigrafe edo gehiagotan alta emanez gero, onuraduntzat joko da, baldin eta jarduera nagusia diruz lagun daitezkeen taldeen barruan dagoen jardueretako bat bada eta egindako ekintzak jarduera horri dagozkionak badira. Laguntza bakarra emango da autonomo eskatzaile bakoitzeko, epigrafe batean baino gehiagotan alta emanda egon ala ez.

Ondasun erkidegoek eta sozietate zibilek eskaera bakarra egin beharko dute. Hori bateraezina izango da ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideek banaka eska ditzaketenekin

5.- BAZTERTUA IZATEKO BALDINTZA OROKORRAK

1.- Ezin izango dira onuradun izan egoera hauetakoren bat duten pertsona fisiko edo juridikoak:

- *Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.*
- *Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.*
- *Edozein onuradunek ezin izango du bere burua gainfinantzatu erakunde honetatik edo beste erakunde batetik jaso ditzakeen dirulaguntzen bidez, eta zinpeko deklarazioaren bidez egiaztatu beharko du hori.*
- *Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.2 artikuluan aurreikusitako arau-hausteengatik ezin izango dira zigortu, ez eta enplegu-programak aplikatzearen ondoriozko onurak eskuratzetik kanpo utzi ere.*

Enpresa/autonomo batek helbide fiskala beste herri edo hiri batean badu eta inguruabar berberengatik dirulaguntza bat lortzen badu (2020an zehar), dirulaguntzarako eskubidea baliogabetu edo eten egingo da, eta, ordaindu izan balitz, itzultzeko eskatuko da.

2.- Kanpoan geratuko dira establezimendu publiko bat irekita duten langile autonomo laguntzaileak eta eskatzaileak, jarduera-lizentziarik ez badute edo deialdia argitaratu aurretik eskatu ez badute.

Ez da onartuko, halaber, ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako bazkideek banaka egin dezaketen eskaera.

3.- Onuradun gisa baztertuta geratzen dira, besteak beste, kapital publikoko erakundeak eta administrazio publikoak, elkarteak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk eta sozietate anonimoak.

6. AURREKONTU KREDITUA

80.000,00 euro.

Eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatutako esleipena, edo, indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira, hura eguneratzetik ondorioztatzen dena.

7.- LAGUNTZEN GEHIENENKO ZENBATEKOAK

- *Jarduera eten behar izan duten sozietateak/autonomoak: 1.400,00 euro*
- *Aktibo egon arren,% 50etik beherako diru-sarrerak izan dituzten sozietateak/autonomoak (4. puntuan oinarrituta): 700 euro.*
- *Diruz lagundu daitekeen jarduerarako soilik den merkataritza- edo industria-lokalik ez badago (etxebizitzak, sotoak eta etxebizitza-eraikinetako trastelekuak izan ezik), dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da. Gehieneko kopurua aurreko kopuruen % 70 izango da..*

Gaitutako aurrekontu-partida eskabide guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, aurreikusitako aurrekontu-partida ekitatez banatuko da baldintzak betetzen dituzten onuradunen artean.

Diruz lagundutako zenbatekoak 2019ko batez besteko langile-kopuruaren arabera izango dira (enplegu eksklusiboa duten autonomoak/jabeak barne):

- *Langile 1: gehienekoaren% 86.*
- *2 langiletik 3ra bitarte: gehienekoaren % 93.*
- *3 langile baino gehiago: gehienekoaren % 100.*

(Adibidez: 6 hilabeterako kontratatutako langile 1 0,5 gisa zenbatuko da)

8.- ESKAEREN BALORAZIOA

Dirulaguntzak zuzenean ematen direnez, eskabideen balorazioa egiteko, baldintzak betetzen dituzten erakunde eskatzaile guztiak 7. atalean ezarritako zenbatekoen onuradun izango direla egiaztatu besterik ez da egingo.

15.- JASANGARRITASUN-TXOSTENAREN BERRI EMOTEA, GASTUAREN ARAUA EZ BETETZEAGATIK.

Zinegotzi guztiak txostenaren barri daukien ezkerro, eta udal izdariaren azalpennak entzunda gero, Udalaren Osoko Bilkura, zinegotzien aho batez (10 zinegotzi), erabagi hau hartu dau:

Bakioko Udalak 2019ko aurrekontua gauzatzeko orduan gastuaren araua ez betetzeagaitik idatzitako 2019ko abenduaren 19ko jasangarritasun-txostenaren jakinaren gainean geratzea, eta agiri hori Bizkaiko Foru Aldundiari bialtzea.

Sektore publikoko merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzko abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoaren lehenengo artikulua aldatu egiten du Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 4. artikulua, eta honela definitzen du finantza-iraunkortasuna: egungo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko gaitasuna, defizitaren, zor publikoaren eta merkataritza-zorraren berankortasunaren mugen barruan, betiere lege honetan, berankortasunari buruzko araudian eta Europako Araudian ezarritakoaren arabera.

Bestalde, Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 6.5 artikulua ezartzen duenez, erakunde batek zorraren helburua betetzen badu eta gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen baditu, eta, betiere, dagokion erakundearen finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez badu, 3. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, ekonomia- eta finantza-planaren ordeztu, kontu-hartzaitzaren eginkizunak betetzen dituen organoaren txosten bat aurkeztuko da, eta Osoko Bilkurari helaraziko zaio, jakinaren gainean egon dadin. Txosten horretan berariaz jasoko dira inguruabar horiek, bai eta dagokion erakundearen finantza-iraunkortasunaren azterketa eta ebaluazioa ere. Ez dira gastu horiek zenbatuko defizit-helburua eta gastu-araua betetzen den baloratzeko.

Bakioko Udalak gerakinak gehitzeko bi espediente onartu ditu, gastu orokorren diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak (guztira 761.952, 77 €), eta kreditu gehigarriak aldatzeko espedienteak ere onartu ditu. Espediente horiek 5., 8., 9., 10., 12., 13. eta 14. zenbakietan daude jasota, eta proposatzen du diruzaintzako gerakina erabiltzea, 496.816,53 €koa, aurrekontuan aurreikusi gabeko gastuak finantzatzeko, ezohiko izaerarekin.

Kontuan hartzekoak:

1. Bakioko Udalak plan ekonomiko-finantzario bat onartu du, 2019ko ekitaldian diru-sarrera ez-finantzarioen gaineko zorraren bolumen-maila % 60tik beherakoa izan dadin lortzeko, eta aurrekontuak aurrezki garbiarekin eta diruzaintzako gerakin positiboekin likidatzeko. 2019ko ekitaldiko aurrekontua

gauzatu dela ikusita, zorraren bolumenaren aurreikuspena abenduaren 31n % 20tik beherakoa izango da, eta gauzatzen ari den aurrekontua aurrezpen garbiarekin eta diruzaintzako gerakin positiboekin likidatuko du.

2. Indarrean dagoen araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epeak betetzen ditu udalak, eta, Diruzaintza Plana ikusita, aurrekontu-aldaketa honek ez du etorkizunean betetze horiek eragotziko.
3. Kreditu-aldaketa honen bidez finantzatu beharreko gastuak ez du udalaren etorkizuneko finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen, honako argudio hauetan oinarrituta:
 - a. Aparteko gastuak dira, eta ezin dute inola ere egiturazko defizit-egoerarik eragin.
 - b. Nolanahi ere, egoera hori aurrekontu-superabitaren egoeran eta gastu konputagarriaren aldaketa-mugen barruan ekitaldi honetarako aurrekontua onartuta konponduko da.
 - c. Ez da ageri inolako gasturik dagoen etorkizunean Udaltzatzen finantza-iraunkortasuna arriskuan jar dezakeenik.
 - d. Korporazioak onartu egin ditu Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zerga-gehikuntzak, 2018ko ekitaldiko aurrekontuan eta Plan Ekonomikoan aurreikusita ez zeuden hurrengoetan islatu direnak. Gaur egun, zorra alde aurretik amortizatzen erabilitako baliabideak kendu ondoren, eta kredituak aldatzeko bi espediente horietan, Diruzaintzako gerakin positiboa du, eta espero da hurrengo ekitaldietan zorpetze-maila % 60tik beherakoa izatea, eta Aurrezki Garbia eta Diruzaintza Erabilgarriko Gerakina modu egonkorrean eta, nolanahi ere, positiboan jarraitzea.

Azken batean, ondoriozta daiteke aurrekontu-aldaketa hauek ez dutela Bakioko Udalaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoan ezarritako baldintzetan, eta ez dutela eragotziko onartutako Ekonomia eta Finantza Plana betetzea.

16.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Inork ez dau egin eskaerarik edo galderarik

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoan ezker, ezta gai-zerrendatik kanpo be, alkate andreak batzar hau 20:20ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria